

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Osoko Udal Batzarrak 2023ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, hemen argitaratu dugun akordioa hartu zuen:

– Karakateko landa parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia behin betikoz onartzea.

Aho batez onartu eta akordio bilakatu da Lurralde Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Karakateko parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia, hain zuzen ere, Elgoibarko Udalak sustatu eta Kripta Asesoría e Investigación Territorial SLK idatzi duena, aurkeztu da behin betiko onartzeko.

Hona hemen espedientean ageri diren aurrekari administrazioak:

– Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022/07/18an egindako bileran, lehendabizikoz onartu zuen Karakateko parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia, Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoak egin behar zuen ingurumen txosten estrategikoaren ondorioak kontuan izatekotan.

– Ingurumen Kalitateko eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendariaren idatziaren bitartez, 2022/09/28an, Elgoibarko Udalarik aditza eman zitzaion, ingurumen organo horren iritziz, ez zegoela egiaztatuta arestiko plan berezia indarrean dagoen araudian jasotako ingurumen ebaluazioari buruzko prozeduraren baten menpe zegoenik, eta, horrexegatik, ez zela bidezkoa Karakateko Parkea Babesteko Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoari dagokion eskaera tramitatzea eta artxibatu egingo zela espediente. Aditza eman zen, ondorioz, organo horren eskumen esparruak ez zuela inolako eragozpenik plan bereziaren onarpena tramitatzeko jarraitzeko.

– Plana jendaurrean jarri zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2022/07/22) eta Diario Vascon (2022/07/21) argitaratu ziren iragarkien bitartez, eta horretarako ezarritako epean, ez zen alegazioak egiteko inolako idatzirik aurkeztu.

– Espedientea EAELABera bidali zen 46/2020 Dekretuaren 32,5 artikuluan xedatutakoa betez; eta erakunde horrek, 2022/04/6an egindako bileran, plan bereziaren aldeko adierazpena egin zuen. Txosten hartan aditza eman zen gainazaleko uren babesguneen erabilerei buruzko plan bereziak (46-49 artikulua) EAeko Ibai eta Errekak Antolatzeko LAPEk definitutako irizpideak osatuko zituela.

2023ko urtarileko agiri bat aurkeztu da. Txostenean arestiko zehaztapena jaso da, plan bereziaren araudiko 46-49 artikuluen izaera osagarriari buruzkoa. Era berean, agiriak kartografia zuzentzen du, hain zuzen ere, karakateko landa parkea antolatzeko kategoriak P-1 izeneko plano. Egiaztatu ahal izan denez, 16-029, 16-043, 16-032, 15-029 eta 15-040 katastroko partzeletan eukaliptoak daude landatuta, eta horrexegatik, «Bereonertzeko esku-hartzearen ingurumen-hobekuntzako zonatzat» hartuko dira (eukaliptoak landatuta dauden beste partzela guztiak bezala).

AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 25 de enero de 2023, adoptó el acuerdo que a continuación se publica:

– Aprobación definitiva del Plan Especial de Protección y Ordenación del parque de Karakate.

Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo, el siguiente dictamen de la Comisión de Territorio:

Se presenta para su aprobación definitiva el documento del Plan Especial de Protección y Ordenación del parque de Karakate, promovido por el Ayuntamiento de Elgoibar y redactado por Kripta Asesoría e Investigación Territorial S.L.

Los antecedentes administrativos que obran en el expediente son los siguientes:

– La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 18/07/2022 aprobó inicialmente el documento de Plan Especial de Protección y Ordenación del parque de Karakate, condicionada a lo que resultara del informe ambiental estratégico que emitiera el órgano ambiental del Gobierno Vasco.

– Mediante escrito del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, el 28/09/2022 se comunicó al Ayuntamiento de Elgoibar que a juicio de dicho órgano ambiental no quedaba acreditado que el citado plan especial estuviera sometido a ninguno de los procedimientos de evaluación ambiental recogidos en la normativa vigente, por lo que no procedía tramitar la solicitud de informe ambiental estratégico del Plan Especial de Protección y Ordenación del Parque de Karakate y se procedía al archivo del expediente. Se señaló que, en consecuencia, desde el marco competencial de dicho órgano no se apreciaba objeción alguna a que continuase la tramitación para la aprobación del plan especial.

– El plan fue sometido a exposición pública mediante anuncios publicados en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (22/07/2022) y en el Diario Vasco (21/07/2022), y en el plazo establecido para para ello no fue presentado escrito de alegación alguno.

– El expediente fue remitido a la COTPV, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 32,5 del Decreto 46/2020, y dicho organismo, en sesión celebrada el 6/04/2022, informó favorablemente el plan especial. Dicho informe señaló que la regulación del plan especial sobre los usos de las zonas de protección de aguas superficiales (artículos 46 al 49) tendría carácter complementario a los criterios definidos por el PTS de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV.

Se ha presentado un documento de fecha de enero de 2023. El mismo incorpora la anterior puntualización sobre el carácter complementario de los artículos 46 al 49 de la normativa del plan especial. Asimismo, el documento corrige la cartografía, concretamente el plano P-1 categorías de ordenación del parque rural de karakate, donde las parcelas catastrales 16-029, 16-043, 16-032, 15-029 y 15-040, las cuales se ha constatado están ocupadas por plantaciones de eucalipto, pasan a ser consideradas en la categoría de «Zona de mejora ambiental de intervención regenerativa» (como todas las parcelas en las que hay plantaciones de eucalipto).

Arestiko zehaztapena eta P-1 planoaren zuzenketa izan ezik, lehendabizikoz onartu den agiriak gainerako zehaztapen guztiak mantentzen ditu.

Horretaz gain, Udal Zerbitzuek egin duten txostena aztertu da.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 / 97 artikuluetan eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22,c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lurralde Batzorde Informatzaileak Udalbatzarrari proposatzen dio ondoko akordioak har ditzala:

**Lehenengoa.** Karakateko parkea Babesteko eta Antolatze-ko Plan Bereziari buruzko agiria, 2023ko urtarriekoa, behin betiko onartzea.

**Bigarrena.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintzako antolamenduaren erregistro administratibora plan bereziaren ale bat bidaltzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

**Hirugarrena.** Espedientearen behin betiko onarpenari buruzko akordioa GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian argitaratzea. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den akordioan onartutako Hirigintza-araudiaren testu osoa txertatu beharko da. Hori guztiori dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa bidali ostean egin beharko da.

Halaber, plan bereziari buruzko agiria Udalaren webgunean argitaratzea.

**Laugarrena.** 15 eguneko epean, behin betiko ebazpenari buruzko akordioa EAELABera bidatzea; eta 3 hilabeteko epean, espedientearen ale oso bat, Batzordeak artxibatu dezan.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dezake interesdunak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, akordio hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik bi hileko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze errekurtsioa aurkezteko Udalbatzarrari, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsioa berriaz erabaki arte edo ustez atzera bota arte.

Elgoibar, 2023ko otsailaren 22a.—Ane Beitia Arriola, alkatea. (1398)

Onartutako agiriaren Araudia argitaratzen dugu hemen, eta adierazten dugu onartutako dokumentua aurkeztu dugula 2023ko otsailaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza planeamenduaren erregistro administratiboan.

## 1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1. PLAN BEREZIAREN IZAERA ETA IRISMENA

#### 1. artikulua. Planaren izaera.

1. Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatze-ko Plan Berezia (aurrerantzean, KBAPB) Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) garapen gisa formulatu da, Hirigintza Arau Orokorraren 12., 13. eta 23. artikuluei jarraikiz.

2. Plan Berezia indarrean dagoen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean oinarrituz idatzi da.

Salvo la anterior puntualización y la corrección del plano P-1, el documento inicialmente aprobado mantiene todo el resto de sus determinaciones.

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales.

De conformidad con lo establecido en los artículos 104 / 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22, c) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

La Comisión Informativa de Territorio propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes acuerdos:

**Primero.** Aprobar definitivamente el documento de Plan Especial de Protección y Ordenación del parque de Karakate de fecha enero de 2023.

**Segundo.** Remitir al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa un ejemplar del plan especial, a los efectos de lo establecido en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

**Tercero.** Proceder a la publicación del acuerdo de aprobación definitiva del expediente en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporando, en la publicación del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el texto íntegro de la normativa urbanística que se aprueba, todo ello, una vez remitido el documento al Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Proceder, asimismo, a la publicación del documento del plan especial en la página web del Ayuntamiento.

**Cuarto.** Remitir a la COTPV, en el plazo de 15 días, una copia del acuerdo de resolución definitiva, y en el plazo de 3 meses, un ejemplar completo del expediente, para su archivo por la Comisión.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer también recurso de reposición ante el Pleno de la Corporación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Elgoibar, a 22 de febrero de 2023.—La alcaldesa, Ane Beitia Arriola. (1398)

A continuación se publica la Normativa del documento aprobado, con indicación de que en fecha 9 de febrero de 2023 se procedió a la presentación del documento urbanístico aprobado en el registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

## 1. DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

### 1.1. NATURALEZA Y ALCANCE DEL PLAN ESPECIAL

#### Artículo 1. Naturaleza del Plan.

1. El Plan Especial de Protección y Ordenación del Parque Rural de Karakate (en adelante PEPOK) se formula como desarrollo del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Elgoibar, en cumplimiento de los artículos 12, 13 y 23, de las Normas Urbanísticas Generales.

2. El Plan Especial se redacta al amparo de la Ley del Suelo y Urbanismo vigente.

## 2. artikulua. Xedea.

1. Plan Berezi honen xedea da Plan Berezian mugatuta dauden lurraldeko naturaguneak, paisaia, ingurune fisikoa eta landa-ingurunea babestu, kontserbatu, katalogatu eta hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea. Neurri horiek Plana indarrean jartzen den unetik aurrera arautuko dira eremuaren hedadura osoan.

2. Ondorio horietarako, Planaren babes-helburua honako elementu hauetara hedatzen dela ulertuko da:

- a. Ekologia-, paisaia- edo kultura-intereseko naturaguneak.
- b. Ur-ibilguak eta ur-masak (bazterrak eta ibaiertzak barne), eta lurpeko akuiferoak eta horien karga-eremuak.
- c. Oreka ekologikoa mantentzen laguntzen duten flora, fauna eta natura-ingurune beste elementu batzuk.
- d. Paisaia nabarmentzen eta paisaia zabaltzen eta ikasten laguntzen duten elementu geologikoak eta/edo geomorfologikoak.
- e. Plan Bereziak antolatutako eremuan dauden aztarnategi arkeologikoak eta kultura-ondasunak.
- f. Baso-lurzoruak eta ingurumena leheneratzeko edo hobetzeko lurzorua.
- g. Oro har, lurzoru erabiltzeko mugak ezarriz babes daitezkeen ingurumen- eta kultura-balio guztiak.

3. Aplikagarriak dira araudi honetan jasotako xedapenak, baita Plan Bereziari eragiten dioten HAPOko xedapenak ere, bereziki antolamendu-kategorien erabilerak arautzen dituztenak: B1 «Hirigintzako arau orokorrak» dokumentuko bigarren tituluko (Lurzoruen egiturazko Hirigintza-kalifikazioaren araubidea) 12. eta 13. artikulua, lurzoru urbanizaezinean ezar daitezkeen erabilerak zehazten dituztenak; eta 23. artikuluko 3. puntuko «C. landa-eremuak» apartatua, lurzoru urbanizaezinen erabilera-erregimena ezartzen duena, lurzoru urbanizaezinen antolamendurako matrizearen bidez.

## 3. artikulua. Aplikazio-eremua.

Indarrean sartzen denetik, Plan Berezia hark zehaztutako eremuan aplikatuko da, hau da, 5. planoan («Karakateko Landa Parkearen Eremua») kartografiatutako eremuan.

## 4. artikulua. Indarrean jartzea eta indarraldiaren baldintzak.

1. KBAPB behin betiko onespeneren erabakia argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da haren zehaztapenak erabat edo zati batean aldatu arte (legez ezarritako betekizunekin), edo erabat indargabetu arte, hala ezartzen duen goragoko mailako plangintza-tresna bat onartzen denean.

2. KBAPB dokumentuko zehaztapenen bat baliogabetzeak, deuseztatzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerako baliozkotasunean, salbu eta horietakoren bat aplikaezina bada, harreman- edo mendekotasun-arrazoiengatik.

## 5. artikulua. Ondorioak.

1. Plan honetako xedapenak lotesleak izango dira Administrazioarentzat eta partikularrentzat.

2. Goragoko mailako hierarkia-planek ezarritako jarduketek ingurumenean eragin negatiboa badute edo Plan Bereziaren helburuak lortzea oztopatzen badute, jarduketa hori sustatzen duen erakundeak beharrezko neurriak hartu beharko ditu eremua bere kategoriaren berezko ezaugarrietara leheneratzeko.

3. Udal-mailako planetako zehaztapenak bata bestearekin bat ez badatoz, ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegitik kontserbazionistagoak direnak nagusituko dira.

## Artículo 2. Objeto.

1. El presente Plan Especial tiene como finalidad establecer las medidas necesarias para asegurar la protección, conservación, catalogación y mejora de los espacios naturales, del paisaje, del medio físico y rural del territorio delimitado en el presente Plan Especial, y regirán desde el momento de su entrada en vigor en toda la extensión del ámbito.

2. A estos efectos se entenderá que la finalidad protectora del Plan se extiende a los siguientes elementos:

- a. Espacios naturales de interés ecológico, paisajístico o cultural.
- b. Cursos y masas de agua con sus márgenes y riberas, así como a los acuíferos subterráneos y sus zonas de recarga.
- c. La flora, la fauna y cuantos otros elementos del medio natural contribuyan al mantenimiento del equilibrio ecológico.
- d. Elementos geológicos y/o geomorfológicos que contribuyan a realzar el paisaje, y a la difusión y aprendizaje del mismo.
- e. Yacimientos arqueológicos y bienes culturales ubicados dentro del ámbito ordenado por el Plan Especial.
- f. Suelos forestales y de regeneración o mejora ambiental.
- g. En general todos los valores ambientales y culturales susceptibles de protección mediante el establecimiento de limitaciones al uso del suelo.

3. Son de aplicación las disposiciones contenidas en la presente normativa, así como las del PGOU que afectan al Plan Especial; específicamente las que regulan los usos de las categorías de ordenación, en el documento B1 «Normas urbanísticas Generales», Título segundo: Régimen de calificación urbanística estructural del suelo, artículos 12 y 13, donde se definen los usos susceptibles de ser implantados en suelo no urbanizable, y el artículo 23, punto 3, del apartado «C. zonas rurales» que establece el régimen de usos en Suelo No Urbanizable mediante la matriz de ordenación del SNU.

## Artículo 3. Ámbito de aplicación.

El presente Plan Especial será de aplicación, desde su entrada en vigor, en el territorio definido por el mismo, que comprende el ámbito cartografiado en el plano 5 «Ámbito del Parque rural de Karakate».

## Artículo 4. Entrada en vigor y condiciones de vigencia.

1. El PEPOK entrará en vigor al día siguiente de la publicación del acuerdo de su aprobación definitiva y regirá hasta que sus determinaciones sean modificadas total o parcialmente con los requisitos legalmente establecidos, o derogadas por completo por la aprobación de un instrumento de planeamiento de ámbito superior que así lo establezca.

2. La nulidad, anulación o modificación de alguna de las determinaciones del documento del PEPOK, no afectará a la validez de las restantes, salvo en el supuesto de que alguna de ellas resulte inaplicable por circunstancias de interrelación o dependencia.

## Artículo 5. Efectos.

1. Las disposiciones de este Plan vincularán tanto a la Administración como a los particulares.

2. En caso de actuaciones impuestas por planes de jerarquía superior y que conlleven afecciones ambientales negativas u obstaculicen la consecución de los objetivos del Plan Especial, la entidad promotora de dicha actuación deberá adoptar las medidas necesarias para la restitución de la zona a las características propias de su categoría.

3. En caso de discrepancias en las determinaciones de distintos planes de rango municipal, prevalecerán aquellas de carácter más conservacionista desde una perspectiva ambiental de sostenibilidad.

4. Plan honetako zehaztapenak behar bezala bete beharko dira, antolatutako eremuan aplikatzekoak diren legeria sektorialetan jasotakoei kalterik egin gabe. Plan honetan jasotako araudia zehatzagoa edo babesleagoa bada, hau aplikatuko da legeria sektorialean jasotakoaren aurretik, betiere haren xedearekin bat badator.

## 1.2. PLAN BEREZIAREN APLIKAZIO-ARAUAK

6. artikulua. *KBAPB osatzen duten dokumentuak eta horien arau-irismena.*

1. Honako dokumentu hauek osatzen dute Plan Berezia:

- 1. dokumentua: Kontzeptu orokorrak.
- 2. dokumentua: Informazio memoria.
- 3. dokumentua: Justifikazio memoria.
- 4. dokumentua: Araudia.
- 5. dokumentua: Antolamendurako eta kudeaketarako gidalerroak.
- 6. dokumentua: Planaren bideragarritasuna.
- 7. dokumentua: Herritarren parte-hartzea.
- 8. dokumentua: Hizkuntza-eraginari buruzko txostena.
- 9. dokumentua: Genero-eraginari buruzko txostena.
- 10. dokumentua: Planoak.
- 11. dokumentua: Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua.

7. artikulua. *KBAPB interpretatzea.*

1. Plan Berezi honen edukiak interpretatzeko bere osotasunean hartu behar da dokumentua. Dokumentazio idatziaren eta grafikoaren artean interpretazio kontrajarriak gertatuz gero, lehenengoari emango zaio lehentasuna, eta babes-arauen eta antolamendu-matrizearen artean kontraesanak badaude, babes-maila handiena duen interpretazioa gailenduko da.

2. Dokumentazio idatziaren eta grafikoaren artean desadostasunak edo kontraesanak badaude, testu idatzian aurreikusitakoa gailenduko da.

3. KBAPB interpretatzean sor daitezkeen zalantzak Elgoibarko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailek ebatziko dituzte.

4. Hirigintzako arau hauetan jasotzen ez diren ordena orokorreko kasuetan, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagozkion ordenantzak aplikatuko dira.

5. Plan Berezi honen arautze-edukia hura osatzen duten dokumentu guztiek definitzen badute ere, Antolamendu Planoek, Hirigintzako Arau hauek eta Antolamendurako eta Kudeaketarako Gidalerroek betetzen dute Hirigintza-jarduera arautzeko funtzio espezifikoa. Beraz, jarduera hori nahitaez egokitu behar da zehaztapen horietara.

6. Gainerako dokumentuek informazio- edo azalpen-izaera dute, eta, beraz, horien edukia ez badator bat lehen aipatutakoekin, haiek gailenduko dira.

7. Era berean, eskala desberdinetako planoen artean Hirigintza-zehaztapen zehatz baten definizioan kontraesanak egonez gero, eskala zehatzagoan gauzatutako planoetan ezarritakoa gailenduko da.

4. Las determinaciones de este Plan se entenderán sin perjuicio de las contenidas en las legislaciones sectoriales de aplicación en el área ordenada. En caso de que la normativa contenida en este Plan resultara más detallada o protectora se aplicará ésta con preferencia sobre la contenida en la legislación sectorial, siempre que no esté en contradicción con la finalidad de la misma.

## 1.2. NORMAS DE APLICACIÓN DEL PLAN ESPECIAL

Artículo 6. *Documentos constitutivos del PEPOK y alcance normativo de los mismos.*

1. El presente Plan Especial está constituido por los siguientes documentos:

- Documento 1: Conceptos generales.
- Documento 2: Memoria informativa.
- Documento 3: Memoria justificativa.
- Documento 4: Normativa.
- Documento 5: Directrices de ordenación y gestión.
- Documento 6: Viabilidad del plan.
- Documento 7: Participación ciudadana.
- Documento 8: Informe de impacto lingüístico.
- Documento 9: Informe de impacto de género.
- Documento 10: Planos.
- Documento 11: Evaluación ambiental estratégica simplificada.

Artículo 7. *Interpretación del PEPOK.*

1. La interpretación de los contenidos de este Plan Especial debe hacerse considerando el documento como un todo unitario. En el supuesto de que se produjeran interpretaciones contradictorias entre la documentación escrita y la gráfica, prevalecerá la primera sobre la segunda y en caso de contradicción entre las normas de protección y la matriz de ordenación, se adoptará la interpretación que conlleve mayor grado de protección.

2. En caso de existir discordancia o contradicción entre el contenido de la documentación escrita y la gráfica, prevalecerá lo previsto en el texto escrito.

3. Las dudas que pudieran surgir en la interpretación del PEPOK serán resueltas por las Áreas de Urbanismo y Medio Ambiente del Ayuntamiento de Elgoibar.

4. En aquellos casos de orden general no contemplados en estas normas urbanísticas, regirán las ordenanzas correspondientes al Plan General de Ordenación Urbana de Elgoibar.

5. Si bien el contenido normativo del presente Plan Especial queda definido por el conjunto de los documentos que lo componen, son los Planos de Ordenación, las presentes Normas Urbanísticas y las Directrices de Organización y Gestión de la Ejecución, los que cumplen una función específica de regulación de la actividad urbanística y por tanto ésta se deberá ajustar de forma obligada a sus determinaciones.

6. El resto de los documentos poseen un carácter informativo o explicativo por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquellos los que prevalezcan.

7. Asimismo, en caso de contradicción en la definición de una determinación urbanística concreta entre planos a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos ejecutados a una escala más detallada.

### 8. artikulua. Plan Bereziaren zehaztapenen lotura.

1. Plan Bereziaren zehaztapenak indarrean egongo dira horiek berrikusi edo aldatu arte, betiere hura onestea eragin duten inguruabarren edo irizpideen funtsezko aldaketak hori justifikatzen badu.

2. Planaren zehaztapenak edozein unetan berrikusi edo aldatu ahal izango dira, plana onartzeko jarraitu diren izapide berrei jarraituz.

### 9. artikulua. Plan Berezia gainbegiratzea.

Bost urtez behin, Plan Bereziaren aplikazioa betetzen dela ikuskatu eta balioetsiko da, dagokion txostena eginda. Txosten horrek Plan Berezia sartu beharreko egokitzapenak edo aldaketak jasoko ditu, unean uneko egoeretara egokitzeko.

## 1.3. PLAN BEREZIAREN KUDEAKETA

### 10. artikulua. Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren neurriak.

1. Ustiapen- eta lehengatze-proiektuek Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren babes-neurri guztiak eta ingurumena zaintzeko programa barne hartu behar dituzte.

2. Aipatutako proiektuei erantsi beharreko babes- eta zuzenketa-neurri guztiak eta ingurumen-kontrolek behar besteko xehetasunez egin behar dute, horien eragin-kortasuna bermatzeko. Aurrekontuan sar daitezkeen neurriak obra-unitate gisa sartu beharko dira, proiektuetan dagokien partida ekonomikoarekin. Aurrekontuan sartu ezin daitezkeen neurriak baldintza teknikoan agirian sartuko dira.

## 2. ERABILERA ETA JARDUERA ARAUTZEKO ARAU OROKORRAK

### 2.1. LEHEN KAPITULUA. LURZORUAREN ERABILEREN, JARDUEREN ETA ANTOLAMENDU-KATEGORIEN DEFINIZIOA

#### 11. artikulua. Erabileren eta jardueren definizioa.

Dokumentu honen Justifikazio Memoriaren 3.8 puntuan jaso eta deskribatu diren moduan, honako talde eta azpitalde hauek banatzen dira lurzorua erabileraren potentzialak:

- \* Ingurumen-babesa.
  - Kontserbazioa.
  - Ingurumen-hobekuntza.
  - Jarduera zientifiko-kulturalak.
- \* Aisia.
  - Aisia estentsiboa.
  - Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera.
  - Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak.
    - Ehiza- eta arrantza-jarduerak.
- \* Lehengaien aprobetxamendua.
  - Nekazaritza-jardunbidea.
  - Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak.
  - Berotegiak.
  - Abeltzaintza-jardunbideak.
  - Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak.
  - Baso-jardunbideak.

### Artículo 8. Vinculación de las determinaciones del Plan Especial.

1. Las determinaciones del Plan Especial serán vigentes hasta que no se proceda a su revisión o modificación, cuando la modificación sustancial de las circunstancias o criterios que han determinado su aprobación lo justifiquen.

2. La revisión o modificación de las determinaciones del Plan podrá realizarse en cualquier momento siguiendo los mismos trámites que se han seguido para su aprobación.

### Artículo 9. Supervisión del Plan Especial.

Se llevará a cabo una supervisión y valoración periódica, cada 5 años, del cumplimiento de la aplicación del Plan Especial, con la emisión del correspondiente informe. Dicho informe recogerá aquellas adaptaciones o modificaciones a incorporar al Plan Especial para su adecuación a las circunstancias del momento.

## 1.3. GESTIÓN DEL PLAN ESPECIAL

### Artículo 10. Medidas del Documento Ambiental Estratégico.

1. Los proyectos de explotación y restauración deben recoger todas las medidas protectoras y el programa de vigilancia ambiental del Documento Ambiental Estratégico.

2. Todas las medidas protectoras y correctoras y los controles ambientales indicados que deban incorporarse a los citados proyectos, han de hacerlo con el suficiente grado de detalle para que garanticen su efectividad. Aquellas medidas que sean presupuestables deberán incluirse como unidad de obra, con su correspondiente partida económica en los proyectos. Las medidas que no puedan presupuestarse se incluirán en el pliego de condiciones técnicas.

## 2. NORMAS GENERALES DE REGULACIÓN DE USOS Y ACTIVIDADES

### 2.1. CAPÍTULO PRIMERO. DEFINICIÓN DE USOS DEL SUELO, ACTIVIDADES Y CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN

#### Artículo 11. Definición de usos y actividades.

Los potenciales usos del suelo, tal y como han sido recogidos y descritos en el punto 3.8 de la Memoria Justificativa del presente documento, se distribuyen en los siguientes grupos y subgrupos:

- \* Protección ambiental.
  - Conservación.
  - Mejora ambiental.
  - Actividades científico-culturales.
- \* Ocio y esparcimiento.
  - Recreo extensivo.
  - Adaptación y uso de recreo intensivo.
    - Construcciones y grandes instalaciones ligadas al recreo intensivo.
      - Actividades cinegéticas y piscícolas.
- \* Aprovechamiento de recursos primarios.
  - Práctica agrícola.
    - Construcciones relacionadas con la explotación agrícola.
    - Invernaderos.
    - Prácticas ganaderas.
    - Construcciones relacionadas con la explotación ganadera.
    - Prácticas forestales.

- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak.
- Nekazaritza-industriak.
- Erauzketa-jarduerak.
- \* Azpiegiturak.
- Garraio-bideak.
- Landa-bideak eta pistak.
- Aireko lineak.
- Lurpeko lineak.
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak.
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak.
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua.
- \* Eraikuntza-erabilerak.
- Lehendik dauden nukleoetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak.
- Lehendik dauden nukleoetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak.
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak.
- Ustiapenari lotutako etxebizitza bakartua.
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza bakartua.
- Instalazio arriskutsuak.

#### 12. artikulua. Erregulazio-mekanismoak.

1. Egokiak edo bokaziozkoak diren erabilera eta/edo jardueratzat jotzen dira antolamendu-kategoriaren bokazioarekin bat datozenak. Horietan, erabilera eta/edo jarduera horiek sustatzea eta horretarako beharrezkotzat jotzen diren neurriak ezaritzea da KBAPBren irizpidea.

2. Erabilera eta/edo jarduera onargarritzat jotzen dira, bokaziozkoak ez izan arren, antolamendu-kategoria batzuetan baimendu daitezkeenak; horiek ingurumen-kontrolak bete beharko dituzte, hala nola Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa, bere araudiaren bidez arautzen dena. Jarduera edo erabilera egokiak ez izan arren, ingurumenarekiko bateragarritasun aldakorra dute.

3. Debekatutako erabilera eta/edo jardueratzat jotzen dira antolamendu-kategoriaren izaerarekin bateraezinak direnak, Karakateko Landa Parkearen barruan. Erabilera horiek gertatuz gero, inpaktu jasanezinak eragingo lirakeke ekologia-, kultura-, ekoizpen- eta paisaia-balioetan, edo nahi ez diren prozesuak sustatuko lirakeke. Debekatutako erabileratzat jotzen dira erabilera egokien eta onargarrien artean ez dauden erabilera guztiak, berariaz adierazten diren edo ez kontuan hartu gabe; izan ere, modu negatiboan eragingo liekete eremuaren ingurumen-erazgarriari, eta ez litzateke betekoa lortu nahi den helburua.

#### 13. artikulua. Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak.

1. Arau-ondorioetarako, «Antolamendu-kategoriak eta -azpi-kategoriak» izango dira dokumentu honetako Justifikazio Memoriaren 3.6 puntuan jasotzen eta deskribatzen direnak. Honako hauek dira:

- \* Babes bereziko eremuak.
- Ekologikoa.
- Zientifiko-kulturala eta paisaia babestekoa.
- \* Baso-mendia.
- Baso-mendi babeslea.
- Natura-intereseko eremuan dauden baso-mendietako eremuak.
- \* Ingurumen-hobekuntza.
- Ebolutiboa.

- Construcciones relacionadas con la explotación forestal.
- Industrias agrarias.
- Actividades extractivas.
- \* Infraestructuras.
- Vías de transporte.
- Caminos rurales y pistas.
- Líneas de tendido aéreo.
- Líneas subterráneas.
- Instalaciones técnicas de servicio tipo A.
- Instalaciones técnicas de servicio tipo B.
- Escombreras y espacio para depósito de residuos sólidos.
- \* Usos edificatorios.
- Crecimientos edificatorios apoyados en núcleos existentes.
- Crecimientos edificatorios no apoyados en núcleos existentes.
- Edificios de utilidad pública e interés social.
- Residencial aislado vinculado a la explotación.
- Residencial aislado no vinculado a la explotación.
- Instalaciones peligrosas.

#### Artículo 12. Mecanismos de regulación.

1. Se consideran usos y/o actividades propiciados o vocacionales aquellos acordes con la vocación de la Categoría de Ordenación, en los que el criterio del PEPOK es propiciar la incentivación de los mismos y la implementación de las medidas que se consideren necesarias para ello.

2. Se consideran usos y/o actividades admisibles aquellos que sin ser vocacionales pueden permitirse sobre algunas categorías de ordenación, independientemente que puedan ser sometidas a controles medioambientales como la Evaluación de Impacto Ambiental, regulada mediante su propia normativa. Aun no siendo actividades o usos propiciados, si tienen un carácter de compatibilidad variable con el medio.

3. Se consideran usos y/o actividades prohibidos aquellos incompatibles con la naturaleza de la categoría de ordenación, dentro del espacio del Parque Rural de Karakate. En el caso de darse estos usos se producirían unos impactos intolerables sobre los valores ecológicos, culturales, productivos, paisajísticos, o se incentivarían procesos no deseados. Son usos prohibidos todos aquellos usos que no están incluidos entre los denominados propiciados y los admisibles, independientemente de que se señalen o no de forma específica, por considerar que afectarían de forma negativa a las características ambientales de la zona, impidiendo el cumplimiento del objetivo perseguido.

#### Artículo 13. Categorías de Ordenación y Condicionantes superpuestos.

1. A efecto normativo, se entenderán como «Categorías y Subcategorías de Ordenación» las recogidas y descritas en el punto 3.6 de la Memoria Justificativa del presente documento. Estas son las siguientes:

- \* Zonas de Especial Protección.
- Ecológica.
- Científico-cultural y paisajística.
- \* Monte Forestal.
- Monte forestal protector.
- Áreas de monte forestal incluidas en el área de interés naturalístico.
- \* Mejora Ambiental.
- Evolutiva.

- Leheneratzeko esku hartu behar dena.
- \* Lurrazaleko uren babesa.
- \* Erabilera publikoko eremuak eta azpiegiturak.
- Telekomunikazio-azpiegituraren ingurunea.
- Bideak eta bidezidorrak.

2. Arau-ondorioetarako, «Antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak» izango dira dokumentu honetako Justifikazio Memoriaren 3.7 puntuan jasotzen eta deskribatzen direnak. Honako hauek dira:

Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzko baldintzatzaile gainjarriak:

- \* Arrisku geofisikoak:
  - % 30etik gorako maldak dituzten eremuak.
  - Irristatzeko arrisku handia duten eremuak.
- \* Klima-aldaketarekin lotutako arriskuak:
  - Ibilguak eta ur-bilketak babesteko eremuak.
  - Interes hidrogeologikoko eremuak.
  - Su-arriskua duten eremuak.
  - Energia berriztagarriekiko sentikorrek diren eremuak (eolkoa eta fotovoltaikoa).

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak:

- \* Espezie babestuen banaketa-eremuak eta Batasunaren intereseko habitatak.
  - Kudeaketa-plana onartuta duen fauna mehatxatuarentzako intereseko eremuak (bisoi europarra).
  - Batasunaren intereseko habitatak.
  - Hegazti-fauna babesteko eremuak (linea elektrikoak).
- \* Igarobide ekologikoak.

**14. artikulua.** *Antolamendu-kategoriei eta baldintzatzaile gainjarriei erabilerak esleitzeko matrizea.*

1. Arau-ondorioetarako, antolamendu-kategoria bakoitzean erabilerak eta jarduerak arautzeko, eta baldintzatzaile gainjarriak zehazteko, sarrera bikoitzeko matrizea ezartzen da (bertan, ilaran islatzen dira erabilerak eta jarduerak, gaur egungoak nahiz potentzialak, eta zutabeetan, berriz, antolamendu-kategoriak eta -azpikategoriak eta baldintzatzaileak). Dokumentu honen Justifikazio Memoriaren 3.9.1 puntuan dago jasota.

2. Aipatutako matrizean erabilera egokiak, onargarriak eta debekatuta daudenak jasotzen dira, eta 1., 2. eta 3. zenbakiak esleitzen dira, hurrenez hurren. Erabilera bat bidegabea bada, (-) ikurra erabiltzen da.

## 2.2. BIGARREN KAPITULUA. ERABILEREN ERREGULAZIO OROKORRA

**15. artikulua.** *Erabilera eta jardueren debeku orokorra.*

1. Antolatutako eremu osoan debekatuta daude honako erabilera eta jarduerak hauek:

- a) Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak. Ibilgailu motordunek lehendik dauden azpiegituren zaintza-, larrialdi- eta mantentze-zerbitzuetarako bakarrik sartu ahal izango dute antolatutako eremuan, baita baso-ustiapenetara sartzeko ere.
- b) Nekazaritza-jardunbideak, nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak eta berotegiak.
- c) Abeltzaintza-jardunbideari lotutako eraikuntzak.
- d) Baso-jardunbideari lotutako eraikuntzak.
- e) Edozein industria-jarduera ezartzea, nekazaritzako industria-jarduerak barne.

- De intervención regenerativa.
- \* Protección de aguas superficiales.
- \* Zonas de Uso Público e infraestructuras.
- Entorno de la infraestructura de telecomunicación.
- Caminos y senderos.

2. A efecto normativo, se entenderán como «Condicionantes Superpuestos a la Ordenación» los recogidos y descritos en el punto 3.7 de la Memoria Justificativa del presente documento, siendo éstos los siguientes:

Condicionantes superpuestos relativos a riesgos naturales y cambio climático:

- \* Riesgos geofísicos:
  - Áreas con pendientes superiores al 30 %.
  - Zonas con riesgo alto de deslizamiento.
- \* Riesgos asociados al cambio climático:
  - Áreas de protección de cauces y captaciones de agua.
  - Áreas de interés hidrogeológico.
  - Áreas con riesgo de incendio.
  - Zonas sensibles a las energías renovables (eólica y fotovoltaica).

Condicionantes superpuestos de la infraestructura verde:

- \* Áreas de distribución de especies protegidas y hábitats de interés comunitario.
  - Áreas de interés para fauna amenazada con plan de gestión aprobado (visión europeo).
  - Hábitats de interés comunitario.
  - Áreas de protección de avifauna (tendidos eléctricos).
- \* Corredores ecológicos.

